



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “VITORIA-GASTEIZKO UDALA: 2000-KO URTEAN ONETSITAKO HAUR ESKOLEN GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA; 2003-KO URTEAN ONETSITAKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAK”.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta Vitoria-Gasteizko udalaren programei buruzko txostena mamitu du: “2000ko urtean onetsitako haur Eskolen Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko programa” eta “2003ko urtean onetsitako Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko programa”. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Programean lehena Udalbatzak 2000ko maiatzaren 12an onetsi zuen, haur eskoletako langile hezitzaileak Euskal Autonomia Erkidegoaren Sare Publikoko irakasle-tutore kategoriarekin homologatzeko Ordezkaritza Sindikalaren eta Giza Baliabideetarako Alorraren Ordezkaritzaren artean izenpetutako erabakia gauzatu. 2000tik 2004ko urtera bitartean hainbat ekintza gauzatu ziren haur eskoletako plantila berregituratzeko eta programa amaitutzat eman zen 2004ko irailean, Gobernu Batzordearen erabaki bitartez; izan ere, erabaki horiek hartzea eragin zuten gertakariak zuztarretik aldatu zirela ulertu baitzuten. 2005eko urtarrilean Udalbatzak haur eskolen molde berri baten gaineko beste erabaki bat hartu zuen. 2005-2006ko ikasturtean, Lanpostuen Zerrendan dauden 200 hezitzaile lanpostutatik, 69 karrerako langile funtzionarioez beteak daude. 2006an, hutsik zeuden lanpostuetatik 82 lanpostu eskaini dira eta gaur egun deialdia bertan behera utzia dago berriki ebatzitako epaiek haur hezitzaileen lanpostuen definizioan eta eskoletarako onetsitako eredian berean izan dezaketen eragina dela-eta.

HKEEk txostenean ondorioztatu du Lanpostuen Zerrendetan Programa indarrean zegoela 2004ko uztailean egindako aldaketak Gobernu Batzordeak onetsi zituela, horretarako eskumena zuen Organoa Udalbatza zela; gainera, epai judiziala ebatzi zain daude langileriarekin negoziazio eza errekurritu zelako.

Erakunde fiskalizatzaileak aztertutako gainerako programak honako hauek izan dira: Ingurumen Saileko kontraten kontrolatzaile lanpostuak kontraten ikuskatzaile postuetara aldatzea; aparkalekuak zaintzeko unitateko langileen talde aldaketa eta lanbide bakarreko ofizialen lanpostuak eta ofizioen laguntzaile den gidari postua, mantentzeko ofizial bihurtzea.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hiru programa hauetan Lanpostu Zerrendaren gaineko zegozkion aldaketak eta Barne Promoziorako neurri bereziak gauzatu ziren, ezargarria den Funtzio Publikorako arautegian agindutakoa urratuko duten alderdiak aurkitu ez direla.